

Dantza-soka
eguna
ospatu
zuten atzo ▶ 7



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Igandea ▶ 2007-02-11 ▶ V. urtea ▶ 1.086. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Espetxe politika aldatzea exijitu du Amnistiaren Aldeko Mugimenduak

AZOKA ▶

Giro epelean inauterien aurreko azken azoka

Udaberriko
produktuen
aurkezpena
egin zuten ▶ 6

TOLOSA ▶ 500 herritar inguru bildu ziren atzo Beotibar pilotalekuan proposamena bultzatzeko

PROPOSAMENA ▶ Gatazkaren konponbidearen inguruan eta ekimen ibiltariak mintzatu ziren ▶ 6



Lizartzan gaur amaituko dira Inauteriak eta Tolosan, hasi dira motorrak berotzen

TOLOSALDEA ▶ Gaur esango diete agur inauteriei lizartzarrek ijitoaren erreketarekin. Modu horretan agurtuko dituzte bi asteburu iraun dituzten festak. Atzokoan, esaterako, puske biltzea eta mozzoroen eta gurdien irteera izan ziren. Tolosan,

berriaz, Kalderero Eguna izan zen atzokoa, inauteriak gertu direla iragarritz. Hala, inauterien egitarauaren baitan, Buruhandi eta Erraldoien kalejira eta Aiz-Orratz elkarteko jaialdia izan ziren, besteak beste. M. SOROA ▶ 4-5

AMEZKETA ▶

Ostolazak irabazi du Albitzuri Aundia Harri- jasotze Txapelketa.

*Balioko prezioa gehienez 4 saiotarako kontratatuta

Hanka + izterondoak
100€
saioko

Sorbaldak
60€
saioko

Promozio
Berezia
2/15etik 3/15era

FOTO
depilazioa

Shuyana Edergintza
Eskolapioetako Lorategiak, 3 - 1A
TOLOSA • Tel.: 943 67 54 89

Depitotal

UZTURRETIK ▶ BITTOR MADINA

Mezuak



Berrobetik Belabietara igota, Uzturrera abiatu nintzen orain dela gutxi. Bertara iristeko, zeharka doan bidean lasai asko nindoala, zuhaitz batek eskaintzen zuen ageri samarreko gordelekutxoan, bi harritxoaren azpian bi orritxoetako ertzak mugitzen zituen haizeak. Bata grisa zen eta bestea berdea. Antza, norbaitek jarrita zeuden hantxe. Aurreneko orritxoak le-

henengo esaldia azpimarratuta zegoen. Hauxe zioen: «Hurrengo egunetik ez zen inor hil». Bigarren orritxoan (azpian 251 zenbaki orria zen), lehenengo esalditxo berbera zegoen errepikatuta, margo gorri indartuta. Heriotzak behin-betiko hilketa-eten iraunkorra lau haizetara aldarrikatzen eta zabaltzen zuen.

Uzturre gainera iritsi nintzenezan, Tolosa eta inguruak behean zabal-zabal ikusten nituela, gordelekutxotik neureganatutako bi orritxo osoak irakurri nituen. Liburu baten hasiera eta bukaerako orritxoak ziren biak. Jose Saramago, idazle portugaldarraren azken liburuko bost hitzetako esaldia, omen. Izaskun al-

dera jaisterakoan, bi orritxoaren koloreez ari nintzen: grisa, tristuraren eta ilun bidearen ispilua; berdea, itxaropenarena.

«Dugun gorputzarekin bizitza betirako»; «Heriotza bere eguneroko lanaren greba mugagabearen sartzen da»; «Azkenean mundu honetan hilezkortasuna nagusituko zaio eguneroko tristurari», nioen nirekiko Izaskungo iturrira hurbiltzerakoan. «Hau dena egia balitz...» esanda, ur tragoxka edan nuen.

Itzultzeko *Maita*-ko bidea hartu nuen. Baserri eder horretako jolasgunetxoan eserita honako burutazioak nagusitu zitzaizkidan: Heriotzaren greba mugaga-

be hori hasten bada mesedegarri izango al zaigu bizitza? Gaitz baten menpean erortzen bagara, gaitz horrekin betiko? Akats fisiko edota psikiko dituztenak zoriontsuagoak izango lirateke? Hilezkortasunak goxatuko ote ditu zahartzaroaren ajeak? Hitz batekin: Sufri-menduarekin, zer?

Bista-tik barrena etxeratzekoan, ate ondoan dudak buzoia zabaltu nuen. Sarrera bakoitzean ohitura inkontzientek eragiten dit zabaltzea. Orri beltz beltzean hizki txuriz grabatutako mezu dizdiratsua nuen aurrean.

«Hartu ezazu bizitza eta heriotza Naturan eta egunerokotasunean duzun eta datorkizun moduan. Ez duzu beste biderik». Philip Roth idazle ezagunaren oparitxo ona jaso dut. *Elegia*, bere azken liburuko ideia nagusia.

IRUDI ZAHARRA ▶



1949an, Kaldereroetako doinuak Tolosako Musika Bandaren eskutik

Erredakzioa ▶ Kaldereroetako doinuak izan ziren nagusi atzo eta herenegun eskualdeko hainbat herritan Inauteriak badatozela iragarri. Antzina ohikoa zen Europa erdialdetik familia edo tribuak etortzea; gertakizun garrantzitsua izaten zen, besteak beste haien janzkerak, kantuak, dantzak eta ohiturengatik, oso bereziak eta ikusgarriak izaten baitziren. Euskal Herrian haien ohiko lanei ekiten zieten, hau da,

eltzeak edota pertzak konpontzeari. Hortik omen dator Kaldereroak ospatzeko ohitura. Hala, garai batean, Tolosako Udal Musika Banda ateratzen zen Kaldererotan. Argazki hau da horren frogarria. 1949koa da eta musikarien artean batzuk besterik ez ditugu ezagutu: Juan Colmenero, Pascual Garces, Leandro Garcia, Tomas Arnal, Blas Urkizu, Miguel Pildain, Jesus Larrauri eta Emilio Luengo. HITZA

hilberria ▶

Claudio Ezkioga Garagorri

Jauna

ATZO hil zen, 55 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
—Goian bego—



Bere animaren zuzendaria: Joxan Larrañaga; emaztea: Izaskun Larburu; seme-alabak: Inaxio, Maialen eta Iker; gurasoak: Ignacio (†) eta Maria (†); ezkon gurasoak: Ramon (†) eta Angelines (†); anai-arrebak: Juan Mari eta Marian, Lourdes eta Mitxel, Ramon, Inazio, Karmele eta Juntxo; osaba-izebak: Inaxi (Jose Manuel Garagorriren alarguna), Ignacia (Ignacio Garagorriren alarguna); ilobak, lehengusua eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezela BIHAR, ASTELEHENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Villabonako Jesusen Bihotza parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Kale Berria, 30-2.
oharra ▶ gorputz berrak Tolosaldeko Funeraria Vascongada Tanatorioan egingo da, astelehena goizeko 11:40ak arte.

VILLABONAN, 2007ko otsailaren 11n

hilberria ▶

Jose Joaquin Artola Zuloaga

Jauna

Atzo hil zen, 67 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
—Goian bego—



Bere emaztea: M^a Soledad Labordeta Bergara; seme-alabak: Raul eta Edurne, Imanol (†), Nekane eta Aitor, Idoi eta Kurruku; biloba: Jurgi; anai-arrebak: Manuela, Ana Mari(†), Joxepa eta Vicente Egiluz, Margari, Pitxika eta Iñaki Ugalde, Juan Mari Labordeta eta Begoña Amonariz, Jorge Labordeta eta Zuriñe Monreal; ilobak; lehengusua; eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezela BIHAR, ASTELEHENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA, parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Gorbea kalea, 2

LEZON, 2007ko otsailaren 11n

► hilberriak
► urteurrenak
► eskertzak

Gipuzkoan
50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

EZBAIAN ▶ Euskararen erabileraren azterketaren emaitzak aurkeztu dituzte aste honetan Zizurkilen. Eskualdeko beste hainbat herritan ere egin dute aurkezpena, eta beste batzuetan azterketa egiten ari dira. Gaiaren iritziak bildu nahi izan ditugu

AINHOA LARREA (ZIZURKILGO EUSKARA TEKNIKARIA) ▶

Zizurkilen %62a!

Aurkeztu berri dugun Zizurkilgo Euskararen Kale Erabileraren Neurketak %62a eman digu. Kopuru bat besterik ez da, baina kopuru altua. Hala ere, zifra honek hausnarketa sakona eskatzen du, zenbaki honen alde onak, ez hain onak eta txarrak aztertzeke. 2001ean egindako neurketak %55'7a eman zuen, baina benetakoa al da 6 puntuko igoera hau?

Kontuan izan behar dugu Zizurkilek bi errealitate oso desberdin dituela: alde batetik Zizurkil Goia, eremu erabat euskalduna, eta bestetik Elbarrena, hiru esparrutan banatua dagoena: Aurrera Auzoa, Bulandegi-Pagamuño eta Ubare Auzoa. Azken hiru eremu hauetan %55a eta %61a arteko erabilera ateratzen da, baina esanguratsuenak

adin taldeen arabera banatutako emaitzak dira.

Bi adin taldeetan egin du gora euskararen erabilerak: batetik, 0-14 urte bitarteko haurren %90,8ak euskaraz hitz egiten omen du, baina argi dago portzentai hau Goiko haurren artean gehiengoz egindako neurketa dela eta ez duela Elbarrenako errealitatea islatzen. Bestetik, 25-64 urte bitarteko helduen taldeak ia %10an egin du gora. Zorionak bai azken talde honi!

Beharakada, aldiz, 65 urtetik gorakoaren artean (akaso duela zenbait hamarkada kanpotik Zizurkilera bizitzera etorri eta euskaraz ikasi ez duten horiek dauzkagu talde honetan) eta 15-24 urte tartean dauden %2,4ak gutxiago hitz egiten du eus-

karaz. Nire iritzi apalean haxe da daturik interesgarriena: gazteek 2001an baino zertxobait gutxiago erabiltzen dute euskara, baina hala ere, kopuru altua da eta etorkizunean gazte horiek umeak izango dituzte eta euskaraz aritzeko joera mantenduko dute eta haur eta helduen taldeek ere gora egingo dutela pentsa daiteke. Betiko moduan, gazteengan jarriko dugu gure itxaropena, baina haurren artean euskararen erabilera zein garrantzitsua den azaltzeko esfortzu berezia eginez. Ziba batean, Euskara magalean! Horrelaxe dio Zizurkilgo Euskara Planak eta, oraindik ere, %62a perezan idatzita izan arren, plana bera erabiltzeko izango zaigula argi dago. Ez ahaztu, Zizurkilen ere euskarak behar zaitu!

JOSE MARI ITURRALDE (IDAZLEA ETA IRAKASLEA) ▶

Euskararen egoera Tolosan

Edozein kaletan paseatzen hastea besterik ez dago, berehalaxe konturatu gara eta. Inoiz baino euskara gehiago entzuten da Tolosako kaleetan. Hori oso pozgarria da. Betidanik entzun izan dugu euskaraz hitz egiten Tolosaldeko jendearen ahoetan Tolosara inguratzen zirenean, baina garai batean tolosarroi leporatzen zitzaigun, bertakoak izanda, ez genuela behar beste euskara erabiltzen gure eguneroko bizitzan. Eta egia zen. Arrazoi zuten, oso gutxi egiten baikenuen tolosarrok.

Garai batean Tolosako jendeak apenas erabiltzen zuen euskara, ez kalean behintzat, euren artean harremanatzeko. Hori, esan bezala, aldatuz joan da, zorionez. Gaur egun tolosar asko eta asko animatu

da euskaraz mintzatzea kalean dabilenean, lagun artean, taberna giroan, azokan, erosketak egiterakoan...

Jendea konturatu da zein garrantzizkoa den euskara bizirik mantentzea gure artean, tolosarrok ohartu gara ez dugula nahi geure hizkuntza galdu dadin, eta ikusi dugu posible dela eguneroko bizimodua erraz eta gustura eramatea hemengo geure euskara goxoa erabiliz. Ikusi dugu posible dela arlo guztietan euskaraz bizitzea, lanean, lagun artean, ikasketetan, maitasun kontuetan...

Soziologikoki ere asko aldatu dira gauzak gu gazte ginen garai hartatik. Gaurko haur eta gazte guztiak —eta hau gehiegizka aritu gabe esan daiteke— badakite euskaraz hemen Tolosan, eta ia guztiak erabil-

tzen dute eguneroko bizimoduan. Gu gazte ginen garaian proportzioak juxtu kontrakoak izango ziren, pentsa zenbat aldatu den gauza. Eta hori kalean, etxeetan eta baita ikastetxeetan ere. Gure ikasketak guztiak gaztekeraz izan ziren, nahi eta nahi ez, eta frankismoaren garai ilun haietan ez zuten uzten hitz bakar bat ere erabiltzen eskola kontuetan. Gaur egun, ordea, Tolosaldeko ia gazte guztiak egiten dituzte bere estudio eta ikasketak euskara hutsean. Hori sinestezina zen gure gazte denborako garaian.

Egia da oraindik ere asko aurreratu behar dugula, eta asko dagoela aurreratzeko; halaz ere, nik esango nuke ondo goazela eta badirela motibo bat baino gehiago baikor jarraitzeko.

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Erantzuteko eskubidea (3)

Onartzen ez dugun mozioaren beste alderdietako bat, eta behar bezala aurka egin ezin izan geniona Udalak, itxaron-zerrendentzat eta egungo erbestertuentzat, emandako epe motzeko konponbidea da.

Egun, 75 pertsonaren itxaron-zerrenden arazoa (37 menpekotasun handia dutenak, 10 autonomoak eta 5 Tolosan erbestertutakoak gehi gutxienez, beste 23 pertsona itxaron-zerrenden eta Tolosaldeko gainerako erbestertuen artean) lurramendiko egoitzan 13 leku

gehiago jarrita konpontzeko asmoa daukate. Egoitza integrala egiten denerako 3 urte inguru pasatuko direla, eta egungo itxaron-zerrendak urte eta erdi baino zertxobait gehiagoan sortu direla kontuan izanda, Jesuskristok jarraitzaileen gose konpontzeko ogiak eta arrainak biderkatu izana tontakeria hutsa dela irudituko zaigu, Tolosaldeko Udalak itxaron-zerrenden eta erbestertuen arazoa konpontzeko lortuko duenarekin alderatuta.

Arazo honen hastapenak gogorarazten dizkigu: Tolosaldeko alkatateak, Gizarte Ongizateko diputatuarekin batera, adierazpen handinahietan, auzokideak

Tolosako egoitzetara eramanda arazoa konponduta zegoela esan zuen. Guk errealitatea adierazpenekin ezin zela konpondu, eta errealitatea gero eta indar handiagoarekin agertuko zela erantzun genion, eta hala aitortu behar izan zuten handik urtebetera.

Gai horri dagokionez, argitu beharreko beste alderdi bat ere bagenuen. Foru Aldunditik diote edukiera handitu egin dutela, baina zer izango da, behin betikoa ala behin-behinekoa? Izan ere, behin betikoa bada, eta kalitatearen eskakizun guztiak betetzen baditu, onartutako mozioaren puntu positibo urrietako bat izango litzateke.

Adieraztea nahi izango genukeen beste alderdietako bat zera da: lurramendi egoitzak toki guztietatik kablez, obrahondakinez, hautsez eta korrontez beteta darama urte eta erdi, eta lan horiek beste urtebetez luzatuko dira. Gainera, mojen gelak erabili behar izan dira egungo egoiliarrei tokia egiteko. Hortaz, ez al zen logikoa agoa izango Euskal Herria plazako gerontologikoaren lokalak erabiltzea? Izan ere, frogatu ahal izan den moduan, lokal horiek nahiko kalitate daukate mundu erdiko abesbatzei eta txotxongileroei harrera egiteko.

MANU LEUNDA (GERONTOLOGIKOAREN ALDEKO PLATAFORMA) ▶ TOLOSA

GUTUN@K ▶

Txosnak Euskal Herriaren parte, eta ez aparte!

Aurten ere Inauteriak iritsi dira! Eta urtero legez, txosna batzordeak dena prest dauka ondo pasatzeko giro euskaldun eta alternatibo batean. Balorazioak kontuan hartuta, aldaketak eta aurrera-pausoak eman ditugu. Arlo desberdinetan lan egiten dugunok, elkarlanean karpa eta barra bakar bat jartzea erabaki genuen. Programazioan, Tolosaldeko musika talde desberdinak bultzatu ditugu, haurrentzako programazioa egiten dugu; beti aurrera begira. Nahiz eta oztopoak izan, Inauterietan gero eta jende gehiagok erreferentzi moduan hartzen ditu txosnak. Gauzak ondo egiten diren seinale!

Bestalde, Tolosako Inauterietan txosnek izan duten ibilbidea oso gorabeheratsua izan da. Kokapenari dagokionez, Udalaren desadostasunak eta oztopoak zirela eta, toki desberdinetan egon gara, horrek ondorioztatzen duen guztiarekin. Duela hiru urte, faktore desberdinak medio, 4 talde bakarrik zeuden txosna batzordeak. Gune alternatiboa ez galdueke, Udalaren oztopoak eta azpijokoa gainditu nahi- an irtenbide bat adostu zen Udalarekin eta Euskal Herria Plazako bizilagunekin. Txosnak eta barrakak txandakatzuz Euskal Herria Plaza erabiltzea, 3 urtez behin hutsik gelditzen zelarik.

Argi dago gune batetik bestera alde dagoela, eta hortaz, Euskal Herria Plaza egokiena iruditzen zaigu. Tamalez, aurten Alondigan kokatu gaituzte, Tolosa erdian, festa gunean dagoen Euskal Herria Plaza hutsik utzita. Urteak dira kokapenaren ezjakintasuna dela eta, gure denbora eta indarrak Udalarekin eztabaidan xahutzen ditugula. Egoera honekin amaitzeko garaia da eta gogoratu txosnak Tolosan urte osoan zehar lan egiten duten taldeen sostegua direla. Beraz, aurtengo erronka: txosna gunea Euskal Herria Plazan betiko!

Denei animatzen zaituztegu txosna gunean parranda egitea. Zuen atxikimendua eskatzen dizuegu. Gozatu eta borrokatu txosna gunea!

AITZOL GARTZIA, EIDER SARAGUETA, DAVID MIANGOLARRA, ARITZ LOPEZ, IKER OTERMIN, MARIA GARTZIA, GOIZARGI IGLESIAS, JOSEBA ELDUAIN, EIDER ELDUAIN ET AL
OIHANA PEÑAGARIKANO ▶
TOLOSAKO TXOSNA BATZORDEA

TOLOSA ► POLITIKA

Autodeterminazioa eta amnistiaren alde, Beotibarren

Preso ohiak, preso politikoen senitartekoak eta amnistiaren aldeko mugimenduko ordezkariak zabala bildu ziren



Beotibarko ekitaldia, atzo, N. GARZIA

NAIARA GARZIA

Autodeterminazioa eta amnistia Euskal Herriarentzat! lelopean bildu ziren atzo Beotibar Piletalekuan Amnistiaren Aldeko Mugimenduko eremu zabala

ordezkatzeko kideak. Bertan izan ziren hainbat preso ohi, preso politikoen senitartekoak eta amnistiaren aldeko mugimenduan era ezberdinetan parte hartzen duten pertsona ugari. Orotara 500 bat

hertar bildu ziren agerraldian.

Ekimen ibiltariak izandako eragina aztertu zuten aurrena, urritik abendura bitarte «Euskal Herria gose greba ibiltari bidez zeharkatu eta presoene

eskubideen babeserako oinarriko aldarrikapenak zabaldu dituen ekimen ibiltariak izandako eragina» aztertzeko baitzuten helburu. Euskal preso politikoen kolektiboak abiatu berri duen borrokalariaren inguruko gogoeta ere egin zuten.

Espetxe politika

Espetxe politika berri baten inguruko proposamena egin zuten. «Espetxe politika gaur xantaita politikorako eta mendeak bultzaturik baldin bada erabilia, bihar konponbiderako eta gatazka iraganeko faktore bilakatzeko izan behar da erabilia». Zentzu honetan, politika berri honen ondorioak hauek lirateke: «Ifñaki de Juanaren bizia salbatzea, larriki gaixo diren presoak askatzea, bizi arteko zigorra gelditzea, salbuespeneko egoera horiek guztiak gaitzitea».

Euskal Herriak konponbidea eta bakea lortzeko haien ustez ezinbestekoak diren esparruak aipatu zituzten: «herri izatearen aitortza politikoa, eskubide guztien errespetua, autodeterminazio eskubidea barne, eta lurralde zatiketaren gaitzitea».

Honetaz gain, espetxe politikak «erabateko eraldaketa» ezagutu beharra duela azpimarratu zuten, hau da, «presoen izaera politikoaren aitortza eta estatus politikoaren errekonozimendua eta errespetua». Azkenik, «gezurrezko eztabaidak» atzean uzteko ordua zela adierazi zuten eta «egiazko pausuak emateko garaia» dela.

Ekitaldi amaieran otsailaren 24eko manifestazio nazionalen parte hartzeko deialdia luzatu zuten. Ondoren, Trianguluan kontzentrazioa egin zuten.

AZOKA ►

Inauteri aurreko azken azoka, giro epelean

Neguko produktuak salgai jarraitzen duten arren, udaberrikoak ere aurkeztu zituzten

PABLO ALBERDI

Atzoko eguna eguzkitsua eta epela izan zen goizetik, eta lehenengo ordutatik jendea ikusi genuen azokako mahietan. Zerrenda negukoak izan zen, baina hori bai, produktu batzuen aurkezpenerekin udaberriaren gertutasuna somatzen dela esan dezakegu. Berdura plazan adibidez, marrubi eta tomate landareekin hasi dira, eta zerkausian mendiola eta udare sagarrak dagoeneko aurkeztuta daude.

Halere barazki zerrendan azak, azaloreak, bruselazak, letxuk, eskarolak, trebisokak, kalabazak, porruak edota azenarioak ikusi genituen; beraz, neguko zerrenda ere oraindik eskuragarri dago.

Atari kalean zuhaitza eskaintza oso zabala izan zen. Joan den asteko azoka berezia zela eta, kopuruak gora egin zuen, eta atzo, nahiz eta horrelako eskaintza ez ikusi, joan diren astean baino produktu gehiago ikusi genituen.

ATZOKO AZOKA ►

Prezioak	merk.	gares.
Berdura plaza		
Azalea	5,00	8,00
Ziklamena	5,50	
Pensamientoa	1,00	
Erromeroa	400	6,00

Bertako produktuak		
Errezil sagarra	0,60	8,00
Intxaurra	2,50	4,00
Ziazerba	1,00	1,50
Kalabaza	1,50	3,00
Erremolabxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,20	10,00
Trebisoka	0,90	

Produktu ekologikoak		
Sagarra	2,00	3,00
Kalabaza	1,60	3,04
Dillistak	2,40	
Txibiriokak	2,40	
Arroza	1,90	2,00
Arbi morea	4,00	
Tipula	1,75	2,00
Zerba	2,00	
Erremolabxa	1,60	
Aza	2,50	3,00

EKIMEN IBILTARIA ► DATUAK

HELBURUAK

Lehenengoak. Larriki gaixorik dauden presoak askatzea. Une honetan 6 euskal preso politikoki larriki gaixorik daude.

Bigarrena. Ezarritako zigorrak bete dituzten presoak askatzea.

Hirugarrena. Euskal preso politikoki guztiak Euskal Herrian

bertan eskubide guztien jabe izatea.

ZEHAZKATUTAKO HERRIAK Euskal Herrian.

Baiona, Donostia, Iruñea, Gasteiz, Bilbo, Arrasate, Hego Uribe, Leioako nibertsitatea, Gasteizko kanpua, Ibaetako

Unibertsitatea, Sakana, Uribe Kosta, Urola Kosta, Baigorri, Deba aldea, Goierri, Deba-goiena, Oarso aldea, Urola garaia.

PARTE HARTZEA

Baraualdietan. 319 pertsonen parte hartu dute Euskal Herri

osoen egin dituzten baraualdietan.

Mobilizazioetan. 16.629.

INTERLOKUZIO LANA

Eragileak. Herri bakoitzean mantendutako bileretan 321 eragile ezberdinekin izan dira gose grebaliariak.

iragarki laburrak ►

ALOKAIRUAN

Tolosa. Konpartitzeko pisu bila nabil. 630 463 173.

LANA

Elektrizitate langilea. Elektrizitate enpresa batek langile autonomo edo kontratupekoak behar ditu. Obrak, indutrietarako... Deitu 943 800000 zenbakira.

Zaintzaileak.

Erakunde publikoetarako. 943 444866.

Harreragileak, laguntzaileak.

Erakunde publikoetarako. 943 444866.

Garbiketa. Mantenua, gidariak, langileak, sukaldaritza langileak... behar dira lanpostu finkoak betetzeko. Deitu 943 32 66 63 zenbakira.

Suhiltzaileak.

Basozainak, Ertzaintza, udaltzainak. Erakunde publikoetarako hainbat deialdi. 943 32 66 63.

Hezkuntza. Eusko Jaurlaritzak. Berehalako deialdia. 1.172 lanpostu gorputz-hezkuntza, haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, ingelesa, euskara, musika, ALE, PT eta aholkularitza. Informa zaitetz. 943 32 66 63.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Sartu eskualdeko egunkariaren web orrian eta eman zure iritzia proposatzen dizugun gaiaren inguruan: «Zer behar du izan zuretzat Inauterietako moztarri on batek?» Animatu eta eman zure iritzia! ►

AMEZKETA ▶ KIROLAK

NAIARA GARZIA

Atzo arratsaldean Amezketan egin zuten Albitzuri Aundia Harri-jasotze Txapelketa Joseba Ostolazak irabazi zuen, 10 minututan 11 aldiz altxatu baitzuen harria.

Amezketako frontoia jendez gainezka egon zen atzo, eta harri-jasotzaileak jendearen animoarekin batera lanean ibili ziren. Ostolaza ez zen izan ordea harria 11 aldiz jaso zuen harri-jasotzaile bakarra, izan ere, Goenatxo II.ak ere 11 aldiz altxatu baitzuen. Baina kasu hauetan egin ohi den bezala, gutxien pisatzen duen harri-jasotzaileak eraman zuen saria. Atzokoarekin, Ostolazak harria duela 10 urte baino behin gehiago alxtatu zuen lortu du. «Duela 10 urte aurretik probak egin genituen, baina aurtengoan probarik egin gabe etorri garenez, nola aterako zen ez nekien. Belau-neraino oso erraz alxtatu dudala ikusi dut, uste baino errazago. Gora eramatea, berriz, zailagoa da», azaldu du txapel-dunak. «Duela 10 urte eginda-koari eustea espero nuen, baina beste behin gehiago alxtatu dut». Berdinketa dela eta irabazi izanak poztu egin du Ostolaza. «Beste batzuetan berdinketa lortu eta niri tokatu zait galtzea».

Joseba Ostolazak irabazi du Albitzuri Aundia Txapelketa

11 aldiz altxatu zuen harria, Goenatxo II.ak bezalaxe, baina pisu gutxiago duenez, lehenengo saria eraman zuen



Harri-jasotzaile guztiak, txapelketa amaitu ondoren. N. GARZIA

Goenatxo II.ak, beraz, bigarren postua eskuratu zuen 11 altxaldirekin. «Oso gustura gelditu naiz. Errekorra hor dago, gainditu nahi duenarentzat».

Izeta II.ak 8 aldiz altxatu zuen harria, hirugarren postua eskuratu. Elusukortak, berriz, 3 altxaldi egin zituen. Izeta III.ak 2 eta Jokin Eizmendik, berriz, 1. Altxaldirik egitea lortu ez zuenik ere izan zen: Landarbide eta Urpek ez zuten harria alxtaterik lortu. Landarbideren kasuan, sorbaldako minez kexatu zen, zaintiraturen bat izan zitekeelakoan. Urpek makina bat saiakera egin arren, ez zuen harri berezi hori alxtatzen asmatu, izan ere, Joxe Anjel Sarasola esatariak azaldu zuen bezala, «harri hau alxtatzeko indarra edukitzea ez da nahikoa».

Jose Goikoetxea harri-jasotzaile iparraldetarrak ez zuen txapelketa parte hartzerik izan. «Asmoa bagenuen, orain dela 10 urte azaldu baikin. Baina gerrietako arazo txiki bat izan dut eta ez ateratzea erabaki dut». Txapelketari dagokionez, mutilak «indartsu» ikusi dituela esan du Iparraldekoak.

Aurtengoan 1996. urtean Goenatxo II.ak lortutako marka ez dute gainditu, 15 altxaera egin baitzituen txanda hartan.

ANOETA ▶ KULTURA

Hirugarren urtez ohitura zaharra mantendu dute Dantza-soka egunean

1a 100 lagun bildu ziren atzo herriko plazan, galdurik egon zen ohitura berreskuratuz

MADDI SOROA

Anoetarrok Auzolanean herri plataformako kultura taldeak antolatuta, urtetan zehar desagerturik egon den dantza-soka eguna burutu zen atzokoan Anoetan. 1a ehundik gora lagun batu ziren ekitaldi honetara, eta urtetik urtera parte hartzaile kopurua handituz doala ikusita, antolatzaileak gustura egoteko moduan daude.

Goizean goiz bildu ziren neska eta mutil, gizon eta emakume herriko plazan, bi taldetan banatuta, baserriz baserri joateko. 13:00etarako plazan bildu ziren guztiak eta mutilen txanda izan zen orduan. Herritarren ikusmina lagun eta nesken animo oihuak alboan, txukun bezain polit aritu ziren

mutilak dantzan. Banaka batzuk, taldeka beste batzuk, txistularien doinuarekin bat ohitura zaharra bizirik mantendu zuten plazan.

Neska eta emakumeen txanda arratsaldean iritsi zen. Hauek ere plazan hartu zuten toki eta bertan izan ziren, besteak beste, Amaiur Luluaga gaztea aurrekulari lanetan eta Ines Urkola atzeskulari lane-tan.

Dantza-soka egunaren harira, Luluagak esana da «ohitura zaharrak mantendu behar dira eta oso ondo iruditzen zait dantza-soka berreskuratzea».

Bejondaiela, beraz, herritarrei eta segi dezatela Dantza-soka eguna mantenduz urte askoan zehar, berriro ere galdutako ez dadin.



Anoetako plazan atzo egin zuten dantza-sokaren une bat. M. SOROA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



OLATZINMO INMOBILIARIA

- Errota, 3 -
Villabona
943 243 118
635 706 728
Olatzinmo@euskalnet.net
www.olatzinmo.com

Tolosa - Villabona - Zizurkil:
31.000.000 - 186.300 €-tik
aurrera
etxebizitzak salgai.

**Urtebetetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...**